



GENERO ERAGINAREN AURRE EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO ARAUZKO TXOSTENA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2022rako AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUARENA.

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egiten da txosten hau, foru arau hauek xedatutakoa betetzeko asmoz: alde batetik, *6/2005 Foru Araua*, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa –70. artikulua–; eta bestetik, *2/2015 Foru Araua*, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa –27. artikulua–.

Zehazki, txostenaren helburua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea zuzen aplikatu den ala ez arau eta jarraibide hauetan xedatutakoa: *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren 27. b)* artikulua, eta *Gipuzkoako Foru Aldundiko organoen izaera orokorreko xedapenen genero eragina aldeztetik ebaluatze txostenak egiteko jarraibideak*, 2011ko ekainaren 21eko *Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz* onartutakoak. Orobat, helburua da zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

2021eko urriaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eskatu zion goian aipatutako proiektuari buruzko genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatze txostena. Aurreproiektu horren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2022rako aurrekontu orokorrak onartzea.

Foru arau bat denez, *2/2015 Foru Arauaren 27.1* artikulua ezarritakoari jarraikiz, genero eraginaren aurre ebaluazioa behar du. Eta xede horrekin, proiektua sustatu edo eragin duen organoak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioko txostena egin du, aipatutako arauko *27.2* artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, hain zuzen ere.

Ondorioz, Berdintasun Zerbitzuak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatze txostena egin du, *15/2016 Foru Dekretuak*, uztailaren 19koak, *Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak*, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.



EGIAZTAPENA

Aurkeztutako genero-eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostenak, argitu ondoren foru-arauaren aurreproiektuak bi arau-erregulazio mota dituela, bata 2022rako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrekin lotua, eta bestea OHZn eta PFEZn planteatutako aldaketekin lotua, **zuzen identifikatzen du aurreproiektuaren genero esanguratsutasuna**, aurreproiektuaren xedea, azken batean, pertsona fisikoak baitira eta, baita, baliabide kasu honetan ekonomikoetarako eskuragarritasuna eta/edo kontrola ere.

Genero esanguratsutasuna identifikatu ondoren, Gipuzkoako gizonen eta emakumeen **abiapuntuko egoerari buruzko azterketa** egin du. Horretarako, 2022ko Aurrekontuetan genero ikuspegiak duen eraginari buruzko azterlana erantsi da. Txosten horretan, Gipuzkoako gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun egoerari eta egoera horren bilakaerari buruzko erreferentziazko adierazle batzuk erabiltzen dira, ikuspegi historikotik begiratuta, eta adierazle horiek EAErekin eta EBrekin alderatzen dira. Emandako datuek erakusten dute genero-arrailak daudela baliabideak (hala nola, denbora, enplegua, prestakuntza, errentaren banaketa eta erabakiak hartzeko guneak) eskuratzeko aukeran. Era berean, pobreziako eta gizarte-bazterketako arriskuarekin lotutako genero desberdintasunei buruzko informazioa jasotzen da, baita emakumeek aurre egin beharreko indarkeria matxistaren egoerari buruzkoa ere.

Gainera, enpleguari eta prestakuntzari dagokienez, segregazio horizontalaren ondorioz emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak aztertzen dira. Enpleguaren kalitate eta baldintzei dagokienez dauden genero desberdintasunak ere jasotzen dira.

Txostenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzura dauden langileei buruzko datuak ere ageri dira, sexuaren arabera bereizita, eta egiaztatu da genero arrakalak daudela jarduera arloei, erantzukizuneko lanpostuei, lan baldintzei eta lana eta familia bateragarri egiteko neurrien erabilerari dagokienez.

Azkenik, txosten honen xede den aurreproiektuan zergen gainean jasotako bi arau aldaketa motei dagokienez, OHZren eta PFEZaren zergak emakume eta gizonen artean nola banatzen diren aztertzen da, 2021eko datuen arabera.

Lehenengoari dagokionez, azterketaren emaitzek adierazten dute emakumeek ehuneko handiagoa dutela ondasun higiezinaren titularren artean (% 51,3 eta % 48,7, hurrenez hurren) eta zerga osoaren ehuneko handiagoa ordaintzen dutela gizonen baino (% 51,9 eta % 48,1, hurrenez hurren).



Bestalde, PFEZaren azterketak erakusten du gizonak emakumeek baino aitorpen gehiago eragiten dituztela (% 55,5 eta % 44,5, hurrenez hurren), zenbateko handiagoa ordaintzen dutela zergagatik (% 64,1 eta % 35,9 hurrenez hurren) eta onura handiagoa ateratzen dietela arau-aurreproiektuan aldatzea proposatzen diren murriztapen, minorazio eta kenkariei dagokienez..

Bestalde, txostenarekin batera doan «2022ko aurrekontuetan generoak duen eraginari buruzko azterlanak – Txosten exekutiboa» garrantzi handi eta ertainekotzat sailkatutako 34 aurrekontu programen lehen analisirako hurbilketa bat jasotzen du genero ikuspegitik. Programa horiek kudeaketa propioaren aurrekontu osoaren % 60,8 hartzen dute (1.019 milioi eurotik 620 milioi euro). Gainera, 34 aurrekontu programa horien garapenaren esparruan, horietan berdintasun politikak garatzeko erabiliko den kopuru zenbatetsi globala jasotzen da.

Hala ere, txostenak aitortzen duenez, nahiz eta aipatutako azterketak sexuaren arabera bereizitako programa batzuen datuak erakusten dituen, programa horiekin batera ez dago dagokion genero-azterketarik, eta, beraz, programa horien genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa ez ditu identifikatzen beharrezkoak liratekeen neurri zuzentzaileak.

Horretarako, aurrekontu programa bakoitzaren genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio espezifikoak egin beharko litzateke, 2021eko Aurrekontuaren Foru Arauaren aurreproiektuari buruz egindako genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio txostenari buruz Berdintasun Zerbitzuak egindako egiaztapen txostenean adierazi zen bezala.

Hain zuzen ere, eta aurreko proposamen horren emaitza gisa, txostenean aurkeztu eta erantsi dira 2021ean abian jarritako esperientzia pilotuan parte hartu duten lau aurrekontu-programen genero-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txosten espezifikoak, araudiak adierazitako genero-inpaktuaren aurretiazko txostenak hobeto egiteko eta Foru Administrazioaren Aurrekontu Orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiteko. Lau aurrekontu programa horiek honako hauek izan dira: adinekoen arreta, lurraldearekiko konpromisoa, funtzio publikoa eta kirolaren sustapena.

Lau aurrekontu programa horietako bakoitzaren txostenetan honako hauek jasotzen dira: txostenaren xedea eta oinarria, programaren genero esaguratsutasunaren azterketa, eragiten dioten berdintasun arloko arau-aginduak, jardun eremuko genero desberdintasunen identifikazioa, genero inpaktuaren aurretiazko balorazioa eta 2022ari begira hartutako neurri zuzentzaileak.



Zehazki, adinekoen arretarako programak egiten duen abiapuntuko azterketak egiaztatzen du emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak daudela mendekotasunaren balorazio mailak aitortzeko eskaeretan, pentsioetan jasotzen dituzten zenbatekoetan, boluntariotzako sarietan eta, adinekoak zaintzeko sektorean lan egiten duten langileen artean nahiz zainketa informalak ematen dituztenen artean, non gehiegizko ordezkartza baitute emakumeek.

Lurraldearekiko Konpromisorako aurrekontu programaren hasierako azterketak ere egiaztatzen du genero-arrakalak daudela hainbat adierazletan: biztanleria ekintzailearen kopuruetan, intraekintzailetasunean, ekintzailetza proiektuetarako kanpo finantzaketarako irisgarritasunean, bizialdi osoko ikaskuntzako ekintzetan, familia erantzukizunetan, zuzendaritza postuetan, soldata zenbatekoetan, jarduera profesionalen tasan, langabezia tasan, kontratu motetan eta lanaldietan eta, halaber, jarduera ekonomikoetako segregazio horizontalean. Identifikatutako desberdintasunen ondorioz, emakumeek ekintzailetza maila apalagoak eta garapen profesionalerako zailtasun handiagoak dituzte, baita gaitasun profesionalak bideratu, eskuratu eta garatzeko arazoak ere; horrek guztiak, aldi berean, eragina du jarduera, okupazio eta langabezia maila desberdinetan, bai eta enpleguen baldintza eta kalitate okerragoetan eta enpresetan ordezkartza eta erabaki mailak lortzeko aukera txikiagoetan ere.

Funtzio Publikoaren aurrekontu programaren hasierako azterketak, bestalde, zenbait baimen eta lizentziaren eskaerekin eta ematearekin lotutako genero-arrailek identifikatzen ditu, besteak beste jardueren bateragarritasunaz, segregazio bertikal eta horizontalaz, eta emakumeen enpleguaren behin-behinekotasun handiagoaz.

Azkenik, Kirola Sustatzeko aurrekontu programak egiten duen hasierako diagnostikoak agerian uzten du genero arrakalak daudela kirola erregularitasunez egiten ez duten helduen kopuruan, eskola kiroleko programaren modalitate eta kategoria guztietako inskripzioetan eta parte hartzean, etorkizuneko kirolarien izendapena urtez urte eskuratzen duten kirolarien kopuruan, Gipuzkoako kirol federazioek urtero izapidetzen dituzten federazio lizentzien eta jolas txartelen kopuruan eta kirol federazioen lehendakartzan emakumeek duten ordezkartzan.

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen egoerari buruz egindako abiapuntuko analisisien ondoren, txostenak genero eragina ebaluatzen du, bai OHZren eta PFEZaren zergetan egindako arau aldaketena, bai aztertutako lau aurrekontu programena.

OHZren zergaren arau aldaketak 1,4 milioi euroko eragin positiboa izango duela uste da, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean ere, emakumeek metatzen dutelako aitortutako katastro balio guztien % 52,2 eta jatorrizko kuotaren ehuneko txikiago bat



ordainduko luketelako (% 51,9). Alabaina, aurreikusten den inpaktua oso txikia da, emakumeen aldeko alde positiboa oso txikia baita eta, beraz, arau aldaketak ez du sakoneko aldakuntzarik ezartzen emakumeen eta gizonen arteko zergaren banaketan.

PFEZaren zergari buruzko arau aldaketak 18,2 milioi euroko eragin negatiboa izango duela aurreikusten da, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragin positiboa izango duela; izan ere, emakumeak % 35,9 ordaintzetik % 35,88 ordaintzera igaroko lirateke. Berrir ere, genero eragina oso apala izango litzateke, emakumeen errenta erabilgarria ez baita ia deusetan handituko.

Nolanahi den ere, aurreproiektua sustatu duen organoak berak ohartarazi du zerga kontzeptu batzuei lotutako zailtasun metodologikoek —hala nola baterako zerga ordainketari lotutakoek— nabarmen mugatu ditzaketela analisiak, eta egindako genero eraginaren balioespena aldatzera ere iritsi daitezkeela.

Bestalde, lau aurrekontu programen aurreikuspena da eragin positiboa izango dutela emakumeen eta gizonen berdintasunean, zenbait neurri zuzentzaile identifikatzen eta aurreikusten dituzten heinean; izan ere, neurri zuzentzaile horiei esker, alde zuzentzaile programak bakoitzean identifikatutako desberdintasunetan esku hartu ahal izango da.

Azaldutako guztiagatik, egiaztatzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektuari buruzko genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenak behar bezala identifikatzen duela aurreproiektuaren genero egokitasuna, sexuaren arabera bereizitako datuak eta genero arrakalei buruzkoak ematen dituela, eta emakumeen eta gizonen abiapuntuko egoera aztertzen duela OHZren eta PFEZaren zergei dagokienez, bai eta lau aurrekontu programa zehatzena ere. Aurrekontu programetan, gainera, neurri zuzentzaileak sartzen dira, genero eragina positiboa izango dela uste izateko adinakoak, alde zuzentzaileak identifikatutako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko.

Hala ere, lortutako datuetatik abiatuta, genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa soilik iristen da genero ikuspegitik garrantzi handi eta ertaintzat sailkatutako aurrekontu proiektu guztien % 12,5era.



ONDORIOA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azaldutako guztiaren arabera, eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27.2.b) artikuluan dioena betez, Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektua sustatu duen departamentuak **partzialki ezarri du** 2/2015 Foru Arauak 27. artikuluan xedatutako prozedura.

Eta hori horrela da aurreproiektuaren genero egokitasunaren identifikazioak, genero eraginaren aurretiazko ebaluazioak eta berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaileen txertatzeak eragiten dielako, soilik, aurrekontu programen % 12,5i eta proposatutako OHZren eta PFEZaren araudi aldaketei.

Hala eta guztiz ere, lau aurrekontu programa espezifikoki lantzeak aurrerapen nabarmena dakar aurrekontuen foru arauaren aurreproiektuaren genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazioaren kalitatean, eta, pixkanaka, gainerako programetara hedatu beharko litzateke. Ildo horretan, aurrekontu programen genero eraginaren ebaluazioa hobetzeko 2021ean hasitako prozesuak eta txostenean bertan ildo horretan sakontzen jarraitzeko adierazitako borondateak iragartzen dute etorkizunean 2/2015 Foru Arauan xedatutakoaren aplikazio egokia berma dezakeen ibilbide bat, Foru Administrazioaren Aurrekontu Orokorren arau proiektuei dagokienez.

Bestalde, txosten exekutiboak diru sarreraren garrantzia ere nabarmentzen du aurrekontu orokorren esparruan.

Izan ere, askotan gastu politikan jartzen da arreta, eta ez diru sarreraren politikan, politika hori aurrekontu publikoen diruaren beste aldea besterik ez baita. Horregatik, interesgarriak eta adierazgarriak dira planteatutako aurrekontuak emakumeengan eta gizonengan duen eragin desberdinari buruz ematen diren datu batzuk, nahiz eta horietan oinarrituta ez den egiten dagokion genero azterketa eta ebaluazioa.

Hori da, adibidez, gastu fiskalen kasua. Egungo aurreproiektuan, gastu fiskalak 2.218 milioi eurokoak dira, eta zerga sarrera teorikoen % 29,3 dira. Kopuru horren zatirik handiena Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokio (zerga sarrera globalen % 52), eta ondoren, zenbatekoaren arabera ordenatuta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (zerga sarrera globalen % 32,3).



Bi zerga pertsonal nagusiak (PFEZ eta Ondarea) kontuan hartuz gero, ikusten ahal da aurreikusitako gastu fiskal osotik, % 60,0 gizonetzkoiei dagokiela eta % 40,0 emakumezkoiei. PFEZaren kasuan, zehazki, gizonen ehunekoa are eta handiagoa da (% 61,4), eta emakumeena % 38,6. Horrek hobekuntza txiki bat dakar 2021eko arrakalarekin alderatuta, nahiz eta oraindik ere oso nabarmen dagoen gizonen alde.

Esparru horretan, **hobekuntza proposamen** hauek egiten dira:

- Lehenik, Gipuzkoako gizonen eta emakumeen abiapuntuko egoera aztertzeke erabilitako adierazleei dagokienez, proposatzen da EAErako Generoaren Europako Indizean lortutako datu batzuk kontsultatzea; izan ere, adierazle batzuetan, Gipuzkoari buruzko informazio espezifikoa eskaintzen dute. Halaber, Indizean bertan ikus daiteke nola bilakatu den lurraldea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, oro har, eta zer posizio duen EB-28 osoan.
- Bigarrenik, aurreproiektuak, sarreran, adierazten duenez Gizarte Politikak eta Ekonomia Sustapenak garrantzi berezia dutela COVID-19aren krisiak eragindako ondorio sozial eta ekonomikoei aurre egiteko, eta, aurreko ekitaldian bezala, 2022rako kudeaketa aurrekontu propioa % 7,40 hazi denez, gomendatzen da ahalegin handiagoa egitea genero-j eraginaren aurretiazko ebaluazioak nabarmen hobetzeko, bi arlo horiei lotutako aurrekontu programei lehentasuna emanez. Are eta gehiago, kontuan hartuta aurrekontu programa asko garrantzi handikoak eta ertainekoak direla genero ikuspegitik begiratuta, eta haien baliabide bolumena, gainera, Foru Aldundiaren kudeaketa aurrekontuaren % 41,8ra iristen dela.
- Azkenik, egiaztapen txosten honen xede den aurreproiektuaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostenari erantsitako «2022ko aurrekontuetan genero ikuspegiak duen eraginari buruzko azterlanak» adierazten duen bezala, zergek berebiziko garrantzia dute Aldundiaren sarrera iturri nagusia direlako. Zerga sisteman egiten diren aldaketek eragina dute gastu fiskalen hedaduran eta banaketan, eta horien diseinuak eragin zuzena eta nabarmena du emakumeen eta gizonen bizitzan.

Zerga sistemaren garrantzia kontuan hartuta, alde batetik; eta PFEZaren zerga eta haren genero eraginaren ebaluazioa egiteko txostenean identifikatutako mugak, bestetik, proposatzen da zerga zehatz horren ebaluazioen kalitatearen hobekuntzan sakontzea, eta genero inaktuaren ebaluazioak zabaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eragiteko ahalmena duen eta genero inaktuaren aurretiazko ebaluaziorik egiten ez den zerga sistemako gainerako figuretara. Horrela egiten ez bada, genero



desberdintasunei eutsiko litzaieke, eta, ondorioz, horien genero eragina negatiboa izango litzateke.

Azkenik, **hizkuntzaren erabilera ez sexistari dagokionez**, testuaren gaztelaniazko bertsioan, ikusten da ahalegin bat egin dela hizkuntza inklusiboa erabiltzeko.

Donostian, 2021eko urriaren 28an.

Laura Gómez Hernández
Berdintasun teknikaria

Ana Agirre Sáez de Eguilaz
Berdintasun zerbitzuburua O.E

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa